

Ihesi

Testua eta argazkiak:
OIER GUILLAN



Euskal Herria ezagutuz:
Hondarribia (Gipuzkoa)

Iragana eta oraina begietan

Leku batzuetan orainak eta iraganak bat egiten dute, kaleen formetan, eraikin historikoen oihartzunetan, goiz lasaien isiltasunean. Hondarribiko hirigune historikoan, kasu. Denborarik gabeko kaleak zeharkatzen hasi eta erraza da gogo atzera eramatea, oinen azpiko uneetan istorioek eta historiek une berrietan elkartzen diren bitartean.



LEKU BATZUETAN historia bisitatzeko ari dela sentitu lezake batek, orainaren soarekin. Nork ez du amestu inoiz beste garai batzuetan bizitzearekin? Hondarribiko hirigune historikoko harresietara inguratzean, tankera horretako sentsazioekin egingo du bat bisitariak. Iragana irudikatzeko harresiaren bueltako hobia imajinatu besterik ez dago, garai batean urak inguratu baitzuen Hondarribia.

Santa Maria ate ingurutik egingo dugu sartzeko bidea. Arkua bistaratu orduko hirigune historiko osoan nagusi den harrizko lurretik abiatuko gara. Egun konpontze-lanetan ari dira Santa Maria atariaren aurreko aldean, eta aukera

paregabea ematen du horrek behinola izan zuen itxura ikusteko. Ate honekin batera San Nikolas delakoa ere zabalik da, berreraikia izan den pasabidearekin.

Santa Maria pasa eta eskuinera joz gero, Murru kalearen parean, Frantsesaren Putzua delakoa topatzen ahal da. Ez dakit zer duen gure inkontzienteak, legendak diren ala filmak, baina putzu bat ikusi orduko gero eta jende gehiago ikusten dut txanpon bat bilatzen eta sakonera botatzen, begiak itxita desio bat eskatzearekin batera. Setio egoera batean ez egotea sekula eskatzen dute agian, izan ere tankera horretako egoerei aurre egiteko eraiki baitzituzten honakoa bezalako putzuak.

Murru kaletik aurrera jarraituz Erdi Aroko harresiaren zati bat ikus daiteke, eta aurrerago berriz, Erreginarene Gotorlekua. Ingurune hau berritua izan da azken urteotan, eta horri esker harresiaren txokoak, bueltak eta pasabideak ezagutu litezke.

Leiba kalea inguratu eta Denda izenekoan barrena abiatuko gara. Puntu honetan ezin uka geldiene bat, inoiz idatzitako hitzen oihartzuna entzuteko, Sagartzazu'tar Kauldi *Satarka* bertako etxe batean jaio zela ekartzen baitu gogora idatzitako batek. Pixka bat atzerago, Harategi kalea hartuta, Gipuzkoa plazarako bidea egingo dugu. Berriagoa da, baina badu alde zahar osoaren xarma bera.

Oro har lasaitasuna da nagusi, eta udan dantza eta antzerki ikuskizunak gauzatzeko eszenatoki aproposa bilakatu ohi da.

Hondarribiko alde zaharrak baditu aintzat hartzeko moduko eraikinak, etxeak, gune historikoak. Baina haiekin batera ezin dira gutxietsi kalerik meharrenak, estue-nak, ahantzienak. Badira kale nagusi batetik bestera igarotzeko metro eta



terko irekidura topatzean: itsasoa. Iparkalea deritzonak zabaltzen du behakoaren iparra, Hendaiaiko hondartza, eta harago ortzi-muga.

Kale Nagusia hartu eta behera egingo dugu. Kale bakarrean Sagarrondoko Andra Mariaren eliza

Kale Nagusian behera teilatuen hegala ikusgarriak azalduko zaizkigu, eta kolore bizidun balkoiak

gotikoa, eta balkoi gehiago, etxe gehiago, asmatutako oroitzapen gehiago. Kanean behera eta etxeen azpian denda berriak, denda zaharrak, iragan mendeko estetika eta txartelak mantentzen dituzten

txoko eta tabernak. Eta baita ere zaharberitutako eraikuntzak, 1735. urteko udal-etxea, edo mende bereko Zuloaga etxea, egun artxibo historikoa eta udal liburategia dena. Kale Nagusian behera goazela gora begiratu eta teilatuen hegala ikusgarriak azalduko zaizkigu, alde zahar osoan topa litezkeenak, eta balkoiak, kolore biziekin berreskuratuak batzuetan.

Bizirik dagoen oraina

Iritsi gara berriro Santa Maria atearen parera. Alde zahararen ikuspegi orokorra jaso ondoren kale artean galtzea besterik ez da gelditzen, eta kantoi bakoitzean gordetzen dituen izenak, istorioak eta historiak jasotzea.

Iragana beti da eskuragaitza. Oraina berriz berton dago, iragan bilakatzeko zain. Sentsazio hori areagotzen ahal da Hondarribiko hirigune historikoa bezalako lekuetan, non harresiek, harrizko hormek eta bide zatiek, etxe lerrokatu, zuzen eta txikiek, guztia entzun eta oroitzen duten. Haien hizkera da ahaztu duguna, berriz ere entzuten ikasi behar genukeena, agian. Hondarribiko alde zahararen gauean, udako kultur ekitaldietan, goizeko jendartean edo tabernetako elkarrizketetan murgildu orduko harresi horien artean geldituko delako gordeta orain hori. ■

Ortzi-mugaren muinoa

Metro gutxi batzuetan behakoak norabide ezberdinak hartuko dizkigu. Lehenik eta behin etxeetara. Burdinazko balkoi, egurrezko zutabe eta kolorezko leiho loredu-netatik harago Arma plazako Gaztelura so egin dugu. Leiho txikiek eraikinaren tamaina goraipatzen dute, adinak eta erasoek zulatutako handitasuna. Begirada ezingo da geldirik egon bat-batean ezus-



Hondarribiko Udala
Tel.: 943 11 12 13

HONDARRIBIA
BETI ZURE ZAIN
www.hondarribia.org

Turismo-bulegoa
Tel.: 943 64 54 58

